

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

KULTURA GARAPEN ARLOA

2019 urteko kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea

2019ko azaroaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2019 urteko kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. Artikuluan eta 45. Artikuluko b. puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

2019an Laudion kultura egitarauetarako diru-laguntzen ematea onestea.

2019ko maiatzaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2019 urteko kultura egitarauak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta hura arautzeko oinarriak.

Deialdia eta oinarriak 2019ko maiatzaren 29ko ALHAOn aurkeztu ziren, eta eskabideak aurkezteko 2019ko ekainaren 29ra arteko epea ireki zelarik, interesdunek eskabideak aurkeztu zituzten.

Guztirako 19.261,94 euro 2019ko Aurrekontuko bada aurrekontu-zuzkidura nahikorik gastu aurre egiteko, lote batean banatuta, 0600 3341 48110 partidan.

Diru-laguntzaren ehuneko laurogei zenbatekoa justifikazioa aurkeztu baino lehen ordainduko da.

Diru-laguntzaren onuradunek hilabeteko epean justifikatu beharko dute diru-laguntza, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik edo diru-laguntza eman zaiela jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasita.

Aurrekariak kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak Laudion 2019 urteko kultura egitarauak garatzeko diru-laguntzak ematea onestu du, zehazten diren zenbatekoetan:

1. SORTA

Agente ezberdinek gure herrian antolatutako jarduera kulturalak. Kopurua 17.261,94 euro.

TALDEA - GRUPO	2019KO DIRU- LAGUNTZA	%80 ORDAINTZEKO	%20 ORDAINTZEKE
Laudio Ikastola Koop E Jarduera: Laudio Ikastola Hezkuntza Jardunaldiak	258,90	207,12	51,78
AMPA Jesuri Jarduera: Fiesta "Fin de Curso"	1.710,00	1.368,00	342,00
AMPA Jesuri Jarduera: Fiesta de Carnaval	80,00	64,00	16,00
Club Taurino Mazzantini Jarduera: XXII Semana Cultural Taurina	1.705,44	1.364,35	341,08
Club Taurino Mazzantini Jarduera: XXVI Concurso de Relato Taurino	996,92	797,53	199,38
Club Taurino Mazzantini Jarduera: Retransmisión de Ferias Taurinas Movistar + Año 2019	1.100,00	880,00	220,00

TALDEA - GRUPO	2019KO DIRU-LAGUNTZA	%80 ORDAINTZEKO	%20 ORDAINTZEKO
Deportiva Cultural Peña Altzarrate Jarduera: IV Edición Premios Altzarrate	770,00	616,00	154,00
Asociación Bi Hotzak Jarduera: Canto Coral	1.920,00	1.536,00	384,00
Escolania ArteOn Jarduera: Canto Coral	2.630,20	2.104,16	526,04
Asociación Kreart-T Jarduera: Creatividad en el Arte y la Cocina	352,00	281,60	70,40
Asociación Kreart-T Jarduera: Creación de Comic e Ilustración básica	300,00	240,00	60,00
AMPA La Milagrosa Jarduera: Fiesta de fin de Curso	1.306,45	1.045,16	261,29
AMPA La Milagrosa Jarduera: Talleres Desfile Carnavales 2019	136,20	108,96	27,24
Kirikiño Aisi Taldea Jarduera: Kirikiñoren 35 Urteurrenaren Jaialdia	2.037,09	1.629,67	407,41
Kukutxe San Blas Feria Jarduera: Audioko Sagar Eguna	1.958,74	1.566,99	391,74

2. SORTA

Joan-etorrietarako diru-laguntzak. Kopurua 2.000,00 euro.

TALDEA - GRUPO	2019KO DIRU-LAGUNTZA	%80 ORDAINTZEKO	%20 ORDAINTZEKO
Asociación Bi Hotzak Jarduera: Santo Domingo, Maule eta Donostirako bidaiak	1.000,00	800,00	200,00
Escolania ArteOn Jarduera: Galicia Sto. Domingo de la Calzada, Lezama eta Donostirako bidaiak	1.000,00	800,00	200,00

Mazzantini Elkarateak aurkeztutako “SEMANA CULTURAL TAURINA” proiektuan hitzaldien gastuetan oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren e) paragrafoa aplikatuz onartzen den gastua 419,52 eurokoa da (13 x 26,67 gehi BEZa); hotelaren gastuetan oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren f) paragrafoa aplikatuz onartzen den gastua 465,85 eurokoa da (11 x 35,00 gehi BEZa); Bidaien gastuetan oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren i) paragrafoa aplikatuz onartzen den gastua 3.806,34 eurokoa da (3 bidai Madrid - Bilbo - Madrid, 5 bidai Sevilla – Bilbo – Sevilla, bidai bat Salamanca - Bilbo - Salamanca eta 7 bidai Loiu – Laudio - Loiu); afarien gastuetan oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren e) paragrafoa aplikatuz onartzen den gastua 346,84 eurokoa da (13,34 x 26); oparien gastuak ez dira kontutan hartzen oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren h) paragrafoa aplikatuz. Beraz onartzen den programaren gastua 5.838,55 eurotakoa da, eta diru-sarrerak 4.133,11 eurotakoa; dagokien gehieneko diru-laguntza 1.705,44 euro izanez.

Mazzantini Elkarateak aurkeztutako “CONCURSO DE RELATO TAURINO” proiektuan sari banaketaren bazkarian gastuan oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren e) paragrafoa aplikatuz onartzen den gastua 69,39 eurokoa da (5 x 13,34 gehi BEZa) jardueraren defizita 996,92 eurokoa izanez (2.009,39 – 1.012,47).

Peña Altzarrate Elkarateak aurkeztutako “PREMIOS PEÑA ALTZARRATE” proiektuan luntxaren eta “Zuentzat”-en gastuak ez dira kontuan hartu oinarrietako zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren d) paragrafoa aplikatuz jardueraren defizita 770,00 eurokoa izanez (1.375,00 - 605,00).

Bi Hotsak Elkarateak aurkeztutako “ACTIVIDADES CULTURALES BI HOTSAK” proiektuan aurreikusten da zuzendariaren desplazamenduetan oinarrietan ezarritako baremoak aplikatzen direla, horrela ez balitz kitapenean behar diren zuzenketak burutuko lirateke.

Eskolania ArteOn Elkarteak aurkeztutako "ACTIVIDADES CULTURALES ESKOLANIA ARTEON" proiektuan zuzendariaren desplazamenduetan oinarrietan ezarritako baremoak aplikatzen direla, horrela ez balitz kitapenean behar diren zuzenketak burutuko lirateke. Elena Rosso-ren hotel eta bazkarietan oinarrietan ezarritako baremoak aplikatu dira (Tailerraren dieten gastuak, pertsona bat eta bi egunetako izanik 32,27 euroetan; hotelaren gastuak pertsona bat eta bi gau izanik 39,24 euroetan, eta bazkariak eta afariak pertsona bat eta lau bazkari izanik, 58,70 euroetan). Txokolataden gastuak ez dira kontuan hartu oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren d) paragrafoa aplikatuz. Beraz onartzen den programaren gastua 6.630,20 euroakoa da, eta diru-sarrerak 4.000,00 euroakoa; dagokien gehienezko diru-laguntza 2.630,20 euro izanez.

Jesuri Guraso elkarteak aurkeztutako "FIESTA FIN DE CURSO" proiektuetan paella eta kamiseten gastuak ez dira kontuan hartzen oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren d) eta h) paragrafoak aplikatuz. Hau kontuan izanik jardueraren defizita 1.710,00 eurokoa da (1.710,00 - 0,00).

La Milagrosa Ikastetxeko Gurasoen Elkarteak aurkeztutako "FIESTA FIN DE CURSO" proiektuan "Premios: tazas pizarra y chandal uniforme" ataleko gastuak ez dira kontuan hartzen oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren h) paragrafoa aplikatuz. Hau kontuan izanik jardueraren defizita 1.148,45 eurokoa da (1.306,45 - 158,00).

BIGARRENA. Ukatzea dirulaguntza Jesuri Guraso elkarteak aurkeztutako "TXOKOLATADA OLENTZERO" eta "MERENDOLA FIN DE CURSO" proiektuei deialdiaren oinarrietan zortzigarren ataleko lehenengo puntuaren d) paragrafoaren aplikazioan.

Interesdunei erabakiaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Laudio, 2019ko abenduaren 9a

Alkalde-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE